

PRAKA MOTYAKIN

PROGRAMA:

- HH3-LH6 adin tartekoentzat, ekintzak hiru txandetan izango dira, 1 txanda, 2 txanda eta Uzt+ astea. 1 txanda, ekainaren 22tik uztailaren 3ra, 2 txanda uztailaren 6tik 17ra eta, UZT+ astea, uztailaren 20tik 24ra egingo da.

BALDINTZAK:

- 3-12 urte bitartekoa izatea (HH3 - LH6).

IZEN EMATEA:

- Maiatzaren 4tik 13ra izango da. **EPEZ KANPO EZ DA HARTUKO IZEN EMATERIK.**
- Gazte Zerbitzu Bulegoan (Elkargunean) astelehenerik ostiralera 16:30-20:00 orduategian egin beharko da edo www.gazteriazkoitia.eus web orrian egin ahal izango da eta izena eman ahal izateko **aurrez ordainketa egina izan beharko du.**
- Programa garatzeko gutxieneko izen ematea izan beharko du.
- Izen ematea bakarka egin beharko da.

ORDAINKETA:

- Txanda bakoitzen prezioak:
 - HH3-HH5: Txanda bakarra 65€, 1 eta 2 txanda 120€
 - LH1-LH3: Txanda bakarra 70€, 1 eta 2 txanda 130€
 - LH4-LH6: Txanda bakarra 80€, 1 eta 2 txanda 150€
 - UZT+ astea HH3-LH6, 35€
- Familia beretik haur bat baino gehiagok izena emanez gero, familia ugariko hurrek edo guraso bakarrek familiek %25eko hobaria izango dute.
- Begiratu prezioen taula.
- Ordainketa egiteko kontu zenbakia: ES21 3035 0031 74 0310900041
- Izen ematearen kontzeptuan, **HAURRAREN izen abizenak** ipini beharko dira.

ZAINZTA ZERBITZUA:

- Udalekuen garaian, zaintza zerbitzua egongo da nahi duenarentzat eta udalekuetan izena eman dutenentzat bakarrik izango da.
- Zaintza ordutegia 7:00etatik 10:00etara izango da.
- Zaintza zerbitzuaren prezioa 1 eta 2 txanden kasuan, bakoitzeko 35,00€ izango da eta 15,00€ UZT+ asteagatik.
- Familia beretik haur bat baino gehiagok izena emanez gero, familia ugariko kidea izan edo guraso bakarrek hurrek %25eko hobaria izango dute. Hau da, 26,25€ ordainduko dute 1 eta 2 txanda bakoitzeko eta 11,25€ UZT+ asteagatik.

- Ordainketa egiteko kontu zenbakia: ES21 3035 0031 74 0310900041
- Zaintza zerbitzura izen ematea on-line edo Gazteria Zerbitzu Bulegoan egin behar da udalekura izen ematearekin batera eta izena ematerako, **ordainketa aurrez egin beharko da.**
- Kontzeptuan, **HAURRAREN izen abizenak** ipini beharko dira. Ordain agiria izen emate orrian txertatu beharko da.

IZENA EMATERAKOAN BEHARREZKO AGIRIAK:

- Gazteria zerbitzu bulegoan zuzenean egitekotan, agirien fotokopiak ekarri beharko dira.
 - Ordain agiria.
 - Osakidetzako txartela.
 - Familia ugariko txartela bere kasuan.
 - Guraso bakarrek familien kasuan, bizikidetzat ziurtagiria edo familia liburuaren fotokopia.

HARREMANETARAKO DATUAK:

- Gazte Zerbitzu Bulegoa, (Elkargunean); 630289650 edo gazteinfo@gazteriazkoitia.eus Bulego ordutegia, astelehenerik ostiralera 16:30 - 20:00.

OHARRAK:

- Udaleku hauetan parte hartuko duten haurren gurasoei, programa ezagutu eta hezitzaileak ezagutzeko informazio bilera bat egingo da ekainaren 10ean arratsaldeko 19:00etan Elkargunearen Oteiza aretoan.
- Udalekuetara izena eman dutenak, egunero Aizkibel Liburutegiaren ondoko plazan elkartuko dira eta ondoren leku berean jaso behar dira haurrak. Eguraldi txarra balitz Elkargunearen Herriko Plaza aretoan elkartu eta jasoko dira haurrak.
- Zaintza zerbitzura izena eman dutenak, Elkargunean Abarketatxo Ludotekan elkartuko dira 7:00etatik 10:00etara bitartean.
- Arrazoren batengatik udalekua garatzea ezinezkoa suertatuko balitz, bertan behera gelditu daitezke udalekua eta zaintza zerbitzua.
- Udalekua hasi baino lehenago bertan behera utzi beharra balego, ordaindutako kopuru osoa itzuliko da, aldiz udalekua abian izanez gero, ordaindutakoa ez da itzuliko (ordurako erreserbak eta bestelako erosketen gastuak eginak izango direlako).